



POESIA LANTZEKO GIDA

Durangaldeko ikastetxeetatik bueltaka arituko diren liburu erraldoietarako, aurten aukeratu dugun gaia POESIA izan da. Ikastetxe batzuetatik egindako proposamenak jaso ondoren, interesgarria iruditu zaigu, poesia lantzea ikasgeletan eta literaturaren arlo berezi honi ere bere garrantzia ematea. Horretarako, dokumentu hau prestatu dugu, poesiaren inguruko informazioa bildu eta ikasleekin lantzeko gomendio batzuk ere bertan azaltzeko.

Olerkaritzaren ezaugarriak:

- Egileak bere buruari eta inguruan duen munduari begiratzean sentitzen dituen sentimenduak eta zirrarak adierazten ditu era subjektiboan.
- Hizkuntzaren erabilera berezia da. Alderdi estetikoak garrantzi handia du.
- Olerkiak laburrak izaten dira.
- Arau batzuk izaten dituzte, hots, erritmoa, neurria eta errima zehatz batzuk.

Poesiaren elementuak:

- Entonazioa: goranzko mugimendua, beheranzkoa, etenaldiak, sentimenduen adierazgarri...
- Erritmoa: abiadura, iraupena, etenaldia, azentuazioa...
- Adierazpena: emozioekin lotura zuzena du, irakurketaren bidez poesian adierazten diren sentimenduen transmisioa ematen da. Gainera, keinuekin lagunduta, poema horri indar gehiago ematen zaio eta erakargarriagoa da entzuten duenarentzako.
- Bolumena: ahots tonuaren bolumena gora edo behera egiteak, zati bakoitzari bere indarra ematen dio.

Poesia lantzeko hainbat ideia:

- Gure irudimenean murgildurik, ikasle bakoitzak esaldiak botatzea; sentimenduekin lotutakoak, bizipenak, gauza barregarriak, errima dutenak, txistekak...
- Poesia entzun (irakasleek errezitatu): denbora tarte bat ematea sentsibilitate poetiko hori garatzeko.
- Poesia irakurri (ikasleek irakurketak egin): poesia irakurtzeari tarte eskaini, transmititzen ikasteko eta poesia bakoitzari zentzu egokia emateko.
- Poesia ikasi: hainbat poesia ezagutzea aberasgarria da
- Euskal olerki batzuk azertu eta landu
- Entonazioa lantzeko ariketak:
 - Ikasleek esaldiak irakurtzea baina modu ezberdinetan: haserre, triste, negarrez, pozik, barrezka, ahoa beteta bezala, ahots finarekin, erraldoiaren ahotsarekin, irakaslearen eskua jarraituz (gorantza, beherantza)...
- Erritmoa lantzeko ariketak:
 - Abiadura lantzeko, ikasleek esaldiak irakurtzea baino modu ezberdinetan: oso astiro, arin, gero eta arinago, irakasleak markatutako abiaduran...
 - Iraupena lantzeko, esaldi edo hitzak luzatuta esatea edo golpe baten.

- Poesian etenaldia momentu egokian sartzerakoan, poesia horri garrantzi gehiago ematen dio, misterioa, erritmoa...
- Jolasak:
 - Hitzei amaierak bilatzea eta horien bitartez errima lantzea.
 - Errimatzen duten objektuak bilatzea eta elkarrekin lotzea, esaldiak sortuz.
 - Eginda dauden olerkiak hartu eta horri hitzak kendu, asmatutako berriak sartzeko.
 - Poesia irakurketak antolatu.
 - Errima duten asmakizunekin jolasean.
 - Ikasle bakoitzaren izenarekin errimak bilatu, esaldiak osatu eta istorioa sortu.
- Olerkiak sortu:
 1. Ikasleek hitzak bota eta arbelean idatziko dira. (aurpegia / itsasoa / ilargia / argia...)
 2. Hitz bakoitzari beste hitz bat gehituko zaio (amaren aurpegia/ itsaso urdina / ilargi betea / izarren argia...).
 3. Arbelean idatzita dauden bikote horiek lotu bata bestearekin, ikasleek erabakitzen duten moduan baina binaka lotuta eta horiei amaiera bat ematea (amaren aurpegia ilargi betea bezalakoa da).

Gomendatzen diren lotura eta liburu batzuk:

- <http://www.basquepoetry.net/>
- "Poesia lantzeko gida" (Euskal Idazleen Elkarte)
- "Mintzo naiz isilik", JUAN KRUIZ IGERABIDE (Elkar): igarkizunen liburua
- "Begi-niniaren poemak", JUAN KRUIZ IGERABIDE (Erein): poema liburua
- "Egun osorako poemak eta beste", JUAN KRUIZ IGERABIDE (Pamiela): poema liburua
- "Kartapazioko poemak", JUAN KRUIZ IGERABIDE (Ibaizabal): poema liburua
- "Munduko ibaien poemak", JUAN KRUIZ IGERABIDE (Elkar): poema liburua
- "Gorputz osorako poemak", JUAN KRUIZ IGERABIDE (Aizkorri): poema liburua
- "Ilargia ezpainetan", JUAN KRUIZ IGERABIDE (Erein): poema liburua
- "64 kanta eta olerki umeentzat", JUAN KRUIZ IGERABIDE (Elkar): kanta eta poema liburua
- "Armiarma zuhaitzean", ANTTON KAZABON (Aizkorri): poema liburua
- "Errekak su", ANTTON KAZABON (Desclée): poema liburua
- "Irrikaren distira", ANTTON KAZABON (Pamiela): poema liburua
- "Ametsak lo", ANTTON KAZABON (Gero-Mensajero): poema liburua
- "Sasiak mendia jan", JOAN MARI IRIGOIEN (Elkar): poema liburua
- "Urruneko motorrak mila zaldi", JOAN MARI IRIGOIEN (Elkar): poema liburua
- "Nire hiriko poemak", ANA URKIZA (Pamiela): poema liburua
- "Ilunorduak eta argilaurdenak", JOXANTONIO ORMAZABAL (Elkar): poema liburua